

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILOPE

271

2019ko uztaia

natari
PRES

DENBORAK ETA
BEHARRAK SORTUTAKO
ESKULTURAK

SKOLAE SARIA

Berdintasunaren alde egindako lan ona aitortu digute.

Ekainaren 12an Baluartean ospatu ziren Skolaeko jardunaldietan gure ikastetxeak sari berezi bat jaso zuen Maria Solana Hezkuntza Kontseilariaren eskutik berdintasunaren alde adierazi dugun konpromezua eta egindako lan ona aitortuz. Ez genuen espero eta sorpresa ezin-hobea izanda ikasturteari amaiera emateko. Zorionak Ibarberri eskolako Klaustro osoari egindako lan guztiagatik, eta bereziki talde eragilea osatu duten Irantzu Z., Itziar, Anttoni, Maider A., Asier eta gure bi gidari ezin hobeei, ikastetxeko Orientatzailea den Arantxari eta Bizikidetzaren arduraduna den Yurreri, merezi duzue. Zorionak benetan!

Eta azkenik, nola ez zorionak familiei, zuek gabe ezinezkoa izango baitzen aurrera eraman diren hainbat jarduera burutzea.

Lanean jarraituko dugu berdintasunaren alde, mila esker eta zorionak denoi!



Ibarberri Ikastetxeko Zuzendaritza

OIHANA ETA GARAZI SORGINTXO UZTERA DOAZ!

Ekainarekin batera heldu zaigu berria; Oihana eta Garazi Sorgintxo uztera doaz.

Oh!! Ze pena!! burura etorri zaigun lehen pentsamendua.

Kalean ere, ahoz aho dabilen kontua da, eta denek dituzte hitz politak zuentzako. Izan ere, urte asko pasa dituzue gure txikiekin eta familia askoren parte izan zarete.

“Zer moduz Sorgintxon? Salto gelan ibili zarete? Zein egongo da gaur Sorgintxon? GA-RA-ZI / OI-HA-NA.”

Gure poxpoloen erantzuna eta gu ezin eutsi irribarreari. Askotan gurasoek izaten ohi dugun aurpegi tentel horrekin aurkitzen gaituzue.

Sorgintxo erabiltzen hasi aurretik zoragarria zela esaten ziguten, umeak izugarri pozik joaten zirela... Eta pronostiko guztiak bete egin ziren.

Guri Sorgintxok lasaitasuna, konfiantza eta oreka eman digu. Egunerokoan aurrera egiteko ezinbestekoa izan zaigu eta esku ezin hobegotan uzten genituela jakiteak ematen duen sententzia ezin da hitzez adierazi.

Zuek beste lan talde batetik lekukoa hartu zenuten bezala, orain Maria Belen eta Izarneri tokatzen zaie Sorgintxoren filosofia aurrera eramatea. Ziur gaude horrela izango dela eta bide batez ongi etorria ematen diegu! Gogotsu gaude zuek ezagutzeko bikote!!

Garazi eta Oihana, lerro hauen bitartez esker ona adierazi nahi dizuegu. Urte guzti hauean profesionaltasunez eta aldi berean maitasunez eta goxotasunez hartu dituzue egunero-egunero gure txikiak.

Zorte on hemendik aurrera ekin diozuen bidean!!

Bihotz-bihotzez Eskerrik asko!



Sorgintxoko gurasoak

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



04 ESKOLATK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK

06 ELKARRIZKETA: Juan Gorriti.

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Udako zorion agurrak.

12 BATZARRE

16 ERREPORTAJEA: Printza.

21 KULTURA

26 KIROLA

28 ERREPORTAJETXOA

31 KONTU TXIKIAK

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugi, Oderitz, Uitzeta eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Araxex Ikastetxea, Satorzulo, L. Zubillaga, Maider Agirrebarrena, Mikel Rekalde, Lekunberriko Udala, Ainhoa Beraza, Camino Garralda, Mikel Azpirotz, Idoia Igoa.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

Hasieratik bukaerara

Eskola honetan hasi ginenean, ez genuen ezer ezagutzen, esperientzia gutxi genuen, eta bizipen berri asko izan ditugu hemen. Horietako batzuk onak, besteak berriz, txarrak, tristeak, beldurgarriak... Baina azkenean, guztiek dute bere garrantzia.

Eskola honetan oso ondo pasa dugu, baina onartu behar da gauza ez horren onak direnak ere izan ditugula, adibidez, azterketak edota etxeko lanak.

Ibarberri eskolan hasi ginenean 3 urterekin, 2 geletan banatuta geunden eta gutxi gorabehera 30 ikasle ginen. A taldean, Maitane zen irakaslea eta gelako "maskota" dortoka bat genuen, Rafaela. Astero, "makinistak", hau da, gelako arduradunak, etxera eramaten zuen aste bat bertan izateko. B taldean, berriz, Oihana zen irakaslea eta hamster bat genuen "Beltxi" izenekoa.

2009-2011 urteetan, ikasle berriak etorri ziren eta denbora gutxi izan genituen gure artean.

2. mailan, gure gelako hiru ikaslek, ikasturtea errepikatu zuten, eta beste ikasle berri bat ere etorri zen.

3. mailan, guztiok elkartu gintuzten gela batean, hainbat lagun joan zirelako. 20 ikasle inguru gelditu ginen. Urte hartatik aurrera geroz eta ikasle gutxiago izaten joan gara.

5. mailan, 21 izan ginen eta ikasurte horren bukaeran 4 joan ziren.

Eskola honetan 11 urte egon ondoren, azken urtea da gurea. Oso ongi pasa dugu, irteerak egiten, jokoak... Gauza interesgarri asko egiteko aukera izan dugu, talde elkarrengileak, tertuliak, esperimenduak, emanaldiak, tailerrak, antzerkiak, irratsaioa, ateraldiak... denok hartu dugu beti parte.

Elkarrekin mantenduko gara orain arte bezala; beti ongi eraman gara eta beti lagundu diogu elkarri edozein egoeratan. Kide guztiok Leitzara joan behar dugu. Alde bate-

tik, pozik gaude gauza berriak egingo ditugulako, jende berria ezagutuko dugulako, ezagutzen ditugun beste lagunekin elkartuko garelako, toki berri bat ezagutuko dugulako eta gure eskolatik joan diren beste ikasle batzuk berriz ikusiko ditugulako... baina bestetik pena handia dugu eskola hau utziko dugulako. Hemengo irakasleak, anai-arreba edo lagunak, orain arteko ohiturak aldatu beharko ditugu.

Gauza bat esan nahi diegu hemendik gure irakasleei:

Eskerrik asko gu aguantatzeagatik, ongi zaintzeagatik eta lan asko bidaltzeagatik. Beste egunen batean ikusiko dugu elkar.

Hurren arte eta ongi jarraitu!!!



eskolatik
mailopera



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEXO



JATETXEA

*Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak*

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



BAZKARIA BERTAN BEHERA

Aralarko Eguna ospatu zuten joan den ekainaren 16an Guardetxean. Goizean aizkolarien erakustaldia izan zen, baina aurreikusita zegoen bazkaria bertan behera gelditu zen jende faltagatik. Badirudi tradizionalki artzain, abeltzain eta inguruko herritarren topaketa hau zenbait urtez ospatzeari utzi izanak bere ondorioak izan dituela.



LGTBI+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Lesbiana, Gay, Transexual-Transgenero, Bisexual eta Intersexual eta gainerako guztien Harrotasunaren Nazioarteko Eguna izan zen joan den ekainaren 28an. Gurean ere udal, talde eta herritarrek bat egin zuten kolektibo horrek gizartearen dituen zailtasunak salatuz eta euren eskubideak aldarrikatuz.



SATORZULO LOKALAREN URTEURREN FESTA!

45 lagun inguru elkartu ziren joan den ekainaren 8an Arribeko Satorzulo gazte lokalaren VI. Urteurrenaren ospakizunean. Alaia Martin eta Eneko Lazkoz izan zituzten aurtengo bertso-bazkarian eta ondoren musikarekin jarraitu zuen festa.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Luis Mari Larreta (Aldatz)

*San Juan da San Pedro
hurrena da Fermin
hirueta juteko
hainbat ahalegin
baño enaiz aztutzen
San Bartolomekin
ospatu nahi baititut
freskotasunakin.*

*San Luis egunakin
sartu da udara
jendea mingainetan
badago algara
gehiengoa dabil da
festarik festara
ritmo hau jasateko
kapazak al gara?*

Doinua: Azienda bat dago.

Hurrengoarentzako puntua:

Larraungo Eguna
ata zen earra.

Oinak:

Jendea, hobe, gordea, ordea.



“Gure historia galeria bat da, denborak eta beharrak eraikitako eskulturak”

Etxean egin du Juan Gorritik bere azken erakusketa. Azkuen, Gaintza eta Uztegi arteko parajeen, “Gaztari erakusketa Mailoan” izenpean ikusgai egon zen ekainaren 8tik 23ra bitarte eta gonbidatu ezin hobeen ekitaldiak ere eskaini ziren bertan. Besteak beste, Mikel Markezek bere alaba Estirekin bi kontzertu akustiko eskaini zituen, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin eskulturez gozatu zuten ikastetxeetatik bisitan joan ziren ikasleek eta Gorritik eraikitako Elostaldeko Ahuntz-hotelean bizi diren 52 ahuntzak protagonista izan ziren Julio Sotok, Alaia Martinek eta Miren Amurizak eskainitako bertso saioan. Bertako nahiz kanpoko jende ugari hurbildu zen joan den hilean Azkuera, Malloen azpian egindako erakusketara.

“Nire defentsa familiaren maitasuna eta bihurri izatea izan dira”

Gorriti Goldarazena dira zure bi lehen abizenak. Larraunen jaioa, Oderitzen, baina haurtzaroa Bete-lun bizitakoa... Zenbat anaia-arreba zineten?

Nik zazpi ezagutu nituen. Gurasoak Uhartre Arakilgoak genituen, aita basozaina zen eta ni Oderitzen jaio arren, hilabete gutxi nituela Betelura etorri ginen bizitzera, Elizburuara. Txikitan bihurria nintzen, orain bezala, ezin geldirik egon eta eskolan beti zigorturik egoten nintzen. Ez nuen eskola maite. Eskolara ez joateagatik “itzulea” joaten ginen orduan. Laiekin eta goldearekin lantzen zuten lurra eta zazpi edo zortzi urteko mutiko koxkorrak ginenean, idi edo behien aurrean lurra ildaskatzera joaten ginen.

Etzeko zein oroitzapen daukazu?

Etxean ere tarteka zigortuta. Arrosarioa erreztatzen genuen egunerok eta ni aspertu egiten nintzen. Etxeko pareta zahar haietan itzalarekin jolasten hasten nintzen, eskuekin animalien formak eginez. Orduan, aita belarrietatik heldu eta leiho gabeko gela batera eramaten ninduen. Hantxe egoten nintzen arrosarioa bukatu arte. 70 urterekin esan zidaten hiperaktiboa nintzela.

Pertsona geldiezina eta alaia zara, Juan...

Bai. Nahiko ahul jaio nintzen, lehen ebakuntza sei urterekin egin zidaten, hamalu urterekin ospitalean debora dezente egon nintzen eta Iparraldean nengoela beste ebakuntza handi bat egin zidaten. Baina familian maitasun handia izan dut. Arboleak aurrera egiteko euren



Juan Gorritik bi cromlech osatu zituen Azkuen. Arg: Labrit.

defentsak dituzten moduan, nire defentsa familiaren maitasuna eta bihurri izatea izan dira.

Eta noiz hasi zinen egurra lantzen?

Umetan. Aitona zurgina zen eta etxeko gela zahar batean aitona trenak izaten genituen. Ni mendian asko ibili naiz txikitatik eta natura izan da nire unibertsitatea. Niretzako eskultura handiena denbora eta natura dira. Nik ez daukat eskolarik, ez ditut Arte Ederrak ikasi... Nire kabuz ikasten joan naiz.

Beteluko eskolan ikasi eta gero fraideetan ere izan zinen...

Bai. Iruñeko akademia batean aritu nintzen ikasten Salesianoetan sartu ahal izateko. 50 plaza zeuden eta nik uste entxufaturik sartu nintzela. Salestarretan elektrikariak, mekanikoak, zurginak, inprentan lan egiteko ikasten zutenak eta sastreak zeuden. Ni joskintzan sartu ninduten, sastre-desastre! [Kar, kar]. Ez nuen asmatzen eta apaizetarako ikasten zebilen anaia Joxe Antoniorekin hitz egin ondoren, inprentara pasa ninduten. Polita zen, baina atsedenaaldian zurgintza ikasten zebiltzanak zirbitez beteta ikusten nituenean inbidia izugarria ematen zidaten. Eta azkenean lortu nuen zurgintza ikastea. Niri ofizio hura izugarri gustatzen zitzaidan, baina fisika, trigonometria eta logaritmoak ere gairatu egin behar ziren. Denborarekin ohartu naiz fisika eta matematikak gairatu arren emaitzarik ez baduzu ez duela ezertarako balio. Nik egiten dudana adibidez fisikarik gabe ez da egiten, baina ikasteko ez nuen balio.

Gero Betelun hasi zinen lanean...

Bai. Urte pare bat baserri batean bizi zen zurgin batekin egin nuen lan eta gero Segurara joan nintzen. Garai hartan eraikuntzan lan handia



Koloreak maite ditu Juan Gorritik. Arg: Labrit

zegoen eta kontratista batzuk zurgin bila etorri ziren herriko ostatura. Entzun orduko aitarengana joan nintzen eta beraiekin hitz egin eta gero, biharamunean bertan, lanean hasi nintzen Seguran. Oso ongi pasa nuen han. Bertan egin nuen lan soldaduskara joan arte. Afrikan guda zen eta asko hara bidaltzen zituzten, orduan ez zen insumisio hitza ere entzuten eta ni boluntario joan nintzen Iruñera. Han ere zurgin lanak egiten ibili nintzen kapitain eta tenienteentzako.

Eta ondoren?

Ondoren Segurara bueltatu nintzen, baina denbora gutxirako. Gurasoak bakarrik zeuden, arrebak ezkontzen hasiak ziren eta beste batzuk kanpoan lanean. Egunero gurasoengana etortzeko Tolosan hasi nintzen. Baina nik gehiago ikasteko gogoia nuen eta Frantziarako muga pasatzen hasi nintzen Irunen ematen zuten 24 orduko baimenarekin. Teila tuak egiten zituzten enpresa batean aritu nintzen lehenbizi eta gero Donibane Lohizuneko tailer batean ere egin nuen lan. Baina ebakuntza gogor bat egin zidaten eta esfortzurik egin ezinik gelditu nintzen. Mugan



“Familia txiki-handi bat gara eta bizilagunen laguntzarik gabe ez zen posible izanen”



Mikel eta Esti Markezek bi emanaldi akustiko eskeini zituzten.
Arg: Labrit

zaharberitze lanetan hasi nintzen. Bertan ezagutu nuen Txaro. Jontxu ere han jaio zen... Baina txoriek zer egiten dute?

Kabia!

Han gustora nengoen, baina Malloak eta hemengo inguru hau gustatzen zitzaidan eta Jontxu jaio berria zela etorri ginen Betelura, Bittor Lasa koinatuak utzitako etxe txiki batera. Bertan jarri nuen tailerra. Ofizioa banuen eta herrian etxe bat egin nahi nuen, baina orduan ez zen horren erraza erosteko lurrak aurkitzea, baina ez nuen Iparraldera bueltatu nahi. Azkenean, Torrontegitarrek Arribeko lursail hau saldu ziguten eta pixkanaka-pixkanaka etxea eraikitzen hasi nintzen.

Ateak beti zabalik dituen etxea...

Bai. Behin Sigfrido Koch argazkilaria eta Jorge Oteiza etorri ziren. Nik ez nituen ezagutzen. Eta Jorgek esan zidan: "Zuk egiten dituzunak eskulturak

dira eta ateak jartzen dizkiezu!" Pixkanaka geroz eta maizago etortzen hasi zen. Etxeko sutondoan majina bat istorio kontatzen genizkion elkarri! Behin hala esan nion nik jaiotetxeaz eta aitonaren etxeaz oroitzuz: "Hau artea bada, ni galeria batean jaioa naiz". Niretzako Jorge Oteiza maisua izan zen, Jorgek leihatila txiki bat ireki zidan. Eskulturak egiten hasi nintzen eta berak ideiak ematen zizkidan. "Baserrian ez da erdigunerik existitzen, puntua da existitzen dena" esaten zidan. Nik ez nion ulertzen, baina ofizioa banuenez, pixkanaka hasi nintzen eta begira, orain Azkueko erakusketa egiten...

Jorge Oteiza harremanetarako pertsona zaila zela diote askok...

Bai, baina nirekin oso ongi moldatzen zen. Oteizaren "Apustuluak" ikusi nituenen, oraindik jartzeko zituela, esan nion: "Baina harri hauek? Haue-tako pila bat daude Aralarren!". Berak serio-serio erantzun zidan: "Hauek Aitzgorrikoak dira!". Nik berari haur baten inozentziarekin hitz egiten nion. Intzan Remigio Mendiburu bizi zen eta berarekin ulertu nuen gure herria, gure baserria, gure historia galeri bat dela, denborak eta beharrak eraikitako eskulturak. Nire hizkuntza hau dela ohartu nintzen. Ez dakit zer den artea, baina ni besteek egindako jarraipena naiz. Nik artzain bat ikusten dudanean gazta bat egiten, eskultura bat da niretzat.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARIBONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Zure ibilbide artistikoan protagonistak izan dira beti natura, nekazal giroa, Malloak.... Eta kolorea!

Bai. Kolorea pila bat maite dut. Orain pintzelik gabe margotzen dut, kolorea botaz. Ebakuntza egin aurretik, pilotan jokatu nuen eta ikasten duzuna ez da behin ere ahazten. Orain pilotan ezin dut jokatu, baina pilotan ariko banintz bezala margotzen dut. Ikastetxe askotatik deitzen naute muralak egiteko eta haurrek izugarri ongi pasatzen dute.

Nolatan bururatu zitzaizun Azkuen erakusketa bat egitea?

Donostiako Miramar Jauregian egin nuen *Aralar Itsasmira* erakusketan, artelan gehienak lorategian jarri nituen. Eta itsasoaren paisaia ederra atzean zutela ikusi nuenean, Malloak etorri zitzaizkidan burura. Halako erakusketa bat egin nahi nuen Malloak atzean nituela. Eta Azkue galeria ederra izan zitekeela iruditu zitzaidan. Donostiako erakusketa hura bukatu nuenean hau prestatzen hasi nintzen.

Gaztari erakusketa Mailopear du izena. Artzaintza eta Malloertako harria lotu dituzu...

Bai. Xabier Peñalverrek cromlechei buruzko tesia du eginda eta hark esan zidan Gipuzkoa aldeko Aralarren pare bat bazirela, baina Nafarroa aldean ez. Eta hala erantzun nion: *"Baina zein muga dituzte mendiek, txoriek, ibaiek, haizeak, hodeiek?"*. Isilik gelditu zen, eta hori omen da erantzunik onena. Horren ondoren, buruari bueltaka hasi nintzaion. Eta cromlecha egiten hasi nintzen. Lehenik 25 pieza egin nituen, gero 43... Hasi eta ezin gelditu. Semearen eta nire ilobak ditudan Zubieta eta Gallurren laguntzarekin gora igo genituen. Han bost metroko litzarekin hamar metroko diametroan zirkulua egin eta banan-banan piezak jartzeko hasi ginen. Soberan zeudela ikusita, lau metroko erradioko



Material ezberdinekin egindako zortzi pertsona sortu zituen. Arg: Labrit

zirkulua egin genuen eta hala bi cromlech atera zitzaizkigun. Peñalverrek dio cromlechek 3.000 urte dituztela. Niretzat cromlech hauek ez dira nireak, denonak dira eta denontzat. Zortzi pertsonaia ere egin nituen cromlechak irudikatzen duten historia horri lotuta daudenak. Eta Miramarren aurkeztutako hainbat lanekin osatu dut erakusketa.

Emaitzarekin pozik zaude?

Bai. Ikusgarria da izan duen arrakasta. Leku guztietako jendea etorri da ikustera. Baina hori dena ez dago bakarrik egiterik. Semearen eta iloben laguntzarekin egin dut eta Mikel Amundarainen kamioarekin eraman genituen zenbait lan gora. Familia txiki-handi bat gara eta bizilagunen laguntzarik gabe ez zen posible izanen.

Baduzu beste ideia berririk?

Orain opor mental batzuk hartuko ditut, baina ziur naiz ideia berriak jaioko direla. Ez zait behin egindakoa kopiatzea gustatzen. Ideiak sortzen ez direnean gelditu eta beste zerbait egin behar da. Ofizia badut eta horrek ez nau behin ere arduratu. Nire tailerrak 13 metro luze dauka eta tamaina horretako mihise bat egiteko ilusioa dut. Haurrekin eta jendearekin koloreztatu nahiko nukeena. Baina proiektu hori oraindik amaren titian dago, garatu beharreko ideia bat da.

“Sortutako zortzi pertsonaiek cromlechak irudikatzen duten historia horri lotuta daude”

Hauteskundeen ondorena



●● Pello Azpirotz

Ilepa Andrea, zer moduz? Udan sartu gara eta Nafarroako alderdi politikoak hauteskunde ondorengo paktuen bila dabilta (agian hau irakurtzen duzueneko paktuak osaturik daude) beraien tarta zatia lortzeko asmoz. "Aldaketaren gobernuak" kolpe nabarmena jaso du hauteskundeetan ezker espainolistak jasan duen beherakada nabarmenaren ondorioz eta gehiengo oso urruti gelditu da. Azken 40 urteetan izan dugun egoera berdinerara itzultzeko aukera asko daude.

Emaitza hauekin PSNri Nafarroako Gobernua eskuratzeko aukerak handitu egin zaizkio eta berriro ere berpiztu egin da. Eta harritzekoa da zein azkar pasa den batzuen iritziz, PSN erregimenaren parte izatetik ezinbesteko aliatu izatera "eskuina" bosterean jarri ez dadin. Lotsagarriak iruditu zaizkit adibidez Esporriek egin-dako adierazpenak iseka eginez. Beste behin, argi geratu da ezker-rari zenbat kostatzen zaion elkartzea (Iruñeko Udalean Aranzadi, Ezkerra eta Elkarrekin Aha dugurekin gertaturikoa zatiketaren adibiderik garbienetakoa da). Nire ustez, alderdi horietako ego pertsonalek ikusteko handia izan dute zatiketa horietan, prezioa edozein dela ere boterean jarraitzeko nahia. Beste behin ere agerian geratu da Nafarroa estatu afera bat dela Madrilentzat eta behar duen guztia egiteko prest dagoela Nafarroa kontrolpean mantentzeko. Ikusiko dugu zer egiten utziko dion Ferrazek Chiviteri.

Atera dudan ondorio nagusietako bat da azken 40 urteetan bezala kalean lanean jarraitu beharko dela, ezin gara soilik instituzioetan gertatzen denari begira egon. Boterean dagoen gobernuak guregan eragina dauka zailtzarrik gabe, baina ezin dugu ahaztu egiazko aldaketa gertatzea nahi baldin badugu egunerokotasunean aritu behar garela lanean. Arriskutsua da pentsatzea hauteskundeetan bozkatzearekin nahikoa egiten dugula eta hortik aurrera instituzioetan daudenei dagokiela aldaketak bultzatzea. Nafarroan aldaketa sustatzen jarraitu behar dugu dudarik gabe. Zuk zer iritziz daukazu, Andrea?



●● Andrea Etxarri


Aupa Pello! Egia da oraingo hauteskundeetako emaitzeekin Nafarroako alderdi politikoak Aldaketaren Gobernua osatzetik urrunago geratu direla. Berriz ere, eta estatuan ere gertatu den bezala, politikan sarturik dauden batzuk interes pertsonalei begiratzen baitiete gizartearen beharrei baino. Hala ere, Larraungo ibarrean aldaketari ekin diogu. Eta aldaketak beharrezkoak direla deritzot, ez beti gaizki eginagatik baizik eta jende berriak ekarpen berriak egin ditzakeelako.

Gaia ateratzen duzula aitzaki, politikarekin zehazki eta bizitzarekin ere erlazioa duen ezaugarri batez arituko naiz.

Pertsona eta alderdi askok "Zurekin ez banago, zure aurka nago" lelopean egiten duten lan. Batetik, botere gehien duenak ez du kontuan hartzen gainontzeko jendeak bozkatutako aukera, gehiengo indartsu batean sentituz gero eta posible badu, ezentzunarena egiten du bere iritziaz kanpo geratzen diren horietaz.

Bestetik, gainerako alderdiek "oposizioa" deritza horretan dabilta 4 urteetan zehar. Izenak ere ez du asko laguntzen, akordioetara iristera, denon artean lan egitera edo elkarren artean erabaki egokienak hartzea, baizik eta elkarren aurka egotera. Erasoan ez bada, defentsan. Horretan joaten zaizkigu indarrak. Denon artean aukeratutako pertsona horiei denontzako goberna dezaten eskatu beharko genieke, proposamenak eskainiz eta malgutasunez jokatuz. Bizitzan beharko lukeen bezala. Marra gorriak jarri daitezke, baina ezin dugu edozein gai marra gorri josi beste kanpo uzten dugun arte.

Bukatzeke, zurekin ados nagoela esan nahiko nuke, hau da, 4 urtetik behin bozkatzeak ez digula erabakiak hartzeko eta gizartearen ekiteko ardura kentzen. Gobernua ere gure isla izango da hein handi batean. Hori bai, beharrezkoa da guk ere haiei eskatzen diegun modu berean ekitea. Elkar entzunez eta adituz, hau da, elkar ulertzeko hitz eginez eta ez erantzuteko soilik. Gure zurruntasuna apurtuz eta elkarbizitzaren ikasiz. Zer nahiago, oposizioa edo elkarlana?





Ainara Balda Ostiz

Uztailaren 18an, 18 urte.
Urte askoz politte!! Oso egun polita pasa eta asko disfrutatu! Muxu handi bat etxekoan partez!



Markel Etxeberria Etxarri

Uztailaren 22an, urte 1.
Zorionak!!! Urte ederra pasa degu zure ondoan. Hortxe izango gaituzu zurekin ospatzen! Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Eder

Uztailaren 28an, 6 urte.
Zorionak bihotza!!! Zeruraino eta buelta maite zaitugu. Gozatu udako oporrak!! Aita, ama eta Jule.



Nora Nazabal Otamendi

Uztailak 14, 8 urte.
Zorionak bihotza, jarraitu zaren bezalakoa izaten. Ongi ospatu zure eguna eta muxu handi bat aita, ama eta Igorren partez.

Danel Aguirrezabala Iriarte

Abuztuak 18, 4 urte.
ZORIONAK pottoko!!! Oso ondo pasa urtebetetze egunean bizkotxo goxo batekin. Muxu pottolo zuretzako, Elene, Aner, Erik eta Arribeko familiaren partez.



ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

GARBIGUNE IBILTARIA

Uztailak 24, asteazkena, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da. Bertara, honako hondakin mota hauek eraman behar dira:

- *pilak, mugikorrak
- *bonbilak eta fluoreszenteak
- *pinturak, barnizak, disolbanteak...
- *autoen bateriak, olioak...
- *toner, tinta kartutxoak...
- *elektrogailu txikiak
- *aerosolak, lixiba
- *radiografiak, termometroak

Herri-bakoitzean, etxeko olioak biltzeko dagoen ontziaren ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30



JAGOBA ARRASATE BETELUKO OIER PEÑAKOEKIN

Osasuna lehen mailara igo eta gero, joan den ekainaren 20an bisita berezia izan zuten Oier San Jurjoren aldeko Peñako kideek. Jagoba Arrasate etorri zitzairen bisitan eta afari baten bueltan elkartu ziren hamabi lagun Beteluko Zigari elkartean.



UDAL BERRIAK OSATU DITUZTE

Maiatzeko hauteskunderen emaitzak ezagutu eta gero, joan den ekainaren 15ean osatu zituzten eskualdeko udal berriak. Araitz eta Betelun zenbait ordezkari berri sartu arren, alkatetzan ez da aldaketarik izan. Lekunberrin eta Larraunen ordea, udal talde eta ondorioz alkatetza ere berritu egin da. Larraungo Udalean Larraungo EH Bilduko Mikel Huartek Joxe Jabier Barberenaren lekukoa hartu zuen eta Lekunberrin, Gorka Azpiroz izendatu zuten alkate. Udal guztiak datozen lau urteotan izanen dituzten ardurak banatzen eta lanean hasiak dira dagoeneko.



Araitz.

JOLAS PARKE BERRIAK LEKUNBERRIN

Lekunberriko Udalak herriko hainbat parke berri ditu azken urte honetan. Azkena, hilerriaren ondokoa izan da, bertako jolas gunea handitu du, tirolina eta guzti dauka orain! Eta beste parke bat ere eraiki du pisu gorrien ondoan. Herritarren eskariz egindako lanak dira, gurasoekin batera egin den lanketa baten ondorioa. Beraz, uda honetan ez dago aitzakiarik herriko jolas parkeez gozatzeko!



Betelu.



Larraun.



Lekunberri.

MUGIROKO KONTZEJUAK ERREPIDE BERRITUA INAUGURATU DU

Mugiroko Kontzejuak Lekunberriko bidegurutzetik herrirainoko errepidearen inaugurazioa egin zuen joan den ekainaren 28an. Bideak zituen zuloak konpontzeko lanak bideratzeari ekin zion Kontzejuak 2016ko ekainean. Joxe Enrique Mariñelarena, Kontzejuko Lehendakaria: *"Errepideko zuloak konpontzea zen hasierako asmoa, baina gero ohartu ginen bidea estuegia zela eta arazoak izaten zirela bi auto gurutzatzerako orduan. Ikasturtean zehar, hiru autobus ibiltzen dira goizez eta beste hiru arratsaldean. Eta bidegurutzean esaterako, Iruñea aldera hartu ahal izateko bi aukera dituzte: Lekunberrira jaitsi eta buelta eman edo aurkako erreia zapaldu".* Hortaz, zuloak estali ez ezik, bidea bera zabaldu dute, sei metroko zabalera du orain, bost metro, gehi zapaldu daitekeen metro bateko areka. 107.000 euroko (BEZ kanpo) inbertsioa izan da, baina gastuen %85 Nafarroako Gobernu Tokiko Administrazio Departamentuak diruz lagundu du Tokiko Inbertsio Planaren bitartez eta horrez gain, beste bi diru-laguntza jaso ditu Mugiroko Kontzejuak, Zehaztapen Askeko Inbertsioentzako diru-laguntza eta Larraungo Udalaren eskutik jasotakoa. Excavaciones Tolosa enpresa arduratu da lanak egiteaz. Errepide berria irekita, Kontzejua buru-belarri lanean hasia da argiztapen publikoaren gastua ordaintzeko eguzki plaken instalakuntzaren aukera aztertzen.



LARRAUNGO IBARREKO ONDARE IMMATERIALARI BURUZKO DOKUMENTALA DAGOENEOK SALGAI

"Zirelako gara... Larraungo Ibarreko Ondarea zainduz" dokumentala ekoiztu du Hauda Komunikazio Agentziak eta dagoeneko salgai dago bost eurotan Mitxausenea Kultur Etxean eta San Juan Gizarte Zentroan. 2009. urtean Eusko Kultur Fundazioak Larraungo Kultur Ondare Immaterialaren bilketa egin zuen Lekunberriko Udalaren eskariz. Maitane Urbizu lekunberriarra arduratu zen elkarrizketa horiek egiteaz. Guztira, joan den mendeko bizimodu, ohitura, ospakizun, ogibide, eta abarrei buruzko 26 ordu grabatu ziren eta ikus-entzunezko honek horietaz gozatzeko aukera ematen du. Aner Ansorena, Hauda Komunikazio Agentziako arduraduna: *"Bere garaian bilketa egin zen eta oso ongi etorri zen bertako ahozko ondarea gorde, aztertu eta mantentzeko, baina ez zen plazaratu. Horregatik eta Maiatzan Kultura egitarauaren baitan kaleratzeko asmoarekin material horrekin ikus-entzunezko bat egitea proposatu genion Lekunberriko Udalari. Euskara Zerbitzuko teknikaria den Ainhoa Berazarekin eta Inma Etxarri Kultur Teknikariarekin elkarlanean egindako lana izan da".* Maiatzean San Juan Gizarte Zentroan proiektatu zen lehen aldiz eta ikusmin handia sortu zuen dokumentalak. Ikusteko aukera galdu bazenuen, orain eskuragarri daukazu!




Bozkatzea “eskubidea” omen

Kontsulatura joan, botoa emateko izena eman, nire datuak sartu, helbidea ongi dagoela behin eta berriz baieztatu eta itxaron. Eta itxaron. Eta itxaron. Egunero ireki dut postontzia azken bi hilabeteetan eta ez dut publizitatea ez den besterik jaso.

Apirilaren 28ko hauteskundeetan boza birritan erregutu behar izan nuen gisara, halaxe egin nuen Nafarroako eta Iruñeko bozetan ere. Nola birritan erregutu? Modu ofizialean bakarrik ez eta abstenitzeko asmotan dagoen jendearen errukiaren bila ibili nintzen. Lortu nuen, baina apirilaren 28ko hauteskundeetan bakarrik. Bizkaiko hautagaiaren alde egin nuen; bizkaitar batek eman baitzuen botoa niregatik. Sare sozialetan eskerrak eman beharrean nago. Nafarroako bozetan, ordea, ez nuen halako zorterik izan.

Lotsagarria. Atzerrian bizi diren askoren “lau-urtekotasuna” bihurtu dira bi aukera hauek: amore eman eta “ba, paso hauteskundeaz. Gainera ez du deusetarako balio” edo laguntzeko prest dagoen norbaitekin ematea. Eta horrek ez luke hala beharko. Erakundeek ez dute boto eskubidea bermatzen, 2019. urtean ez dago, antza, kanpoan dauden hautesleentzako eskubidea bermatzeko modu errazagorik. Gero, ordea, NAN elektronikoa emana digute berritzera joaten garen hurrengoan. Eskerrik asko.

Ez dut erokeriarik esaten “eskubideaz” ari naizenean. A28ren



aurretik ikusi genituen debateetan “konstituzio” hitza hamaika aldiz azaldu zen. Gaur nik bertara jotzea erabaki dut eta hara! 23. artikulua zera dio:

“Hiritargoak arazo publikoetan zuzenki edo aldikako aukeramenetan bozketaren bidez libreki aukeratutako ordezkarien bitartez parte hartzeko eskubidea du”

Baina, beste behin, hitz potolo hori nahi dutenerako erabiliko dute (gai honen inguruan ere beste hiruzpalau Mailope oso betetzeko adina berba edukiko nitzuke, beraz, ez naiz luzatuko).

15.121 boto eskakizun kudeatu ditu Nafarroako Correosek. Espainiar estatuko hauteskundeetan 176.000k baino gehiagok bozkatu dute aurtengoetan, Espainiako Estatistika Institutuaren arabera. Kontuan izan: Espainia mailan bi milioi bat pertsona bizi dira atzerrian. Pentsa zenbaterik ez duen boza eskatzen, jakinaren gainean baitaude zenbat eta zenbat mila boza gelditzen diren bidean.

Jakin nahiko nuke zenbat garen gure bozka-orriak jaso ez ditugunak. Zenbati ukatu zaigun gurea ere baden eskubidea.



luze

●● Veronica Satrustegi

Hitzaspertuan



Agurtzane Altuna

Izena eta izana

Ze goxoa belar moztu berrien usaie, o sargori den eunetan ostotsak jo ta ebi in berrien usaie. Ze polittek dauden garai hontan baztarrak. Malloak oaintxe daude berdeen. Ze polittek hosto berrittuta dauden arbola eta landareak ta barroti orraztu berrik. Mendi kaxko batea iyo ta a ze kolore kontrasteak. Earki asko antzematea ze soro daun jorratue, zein belarrak hartue, ze barroti moztu berrie ta zein egualdi onan zai utzi ta utzi, onduie.

la barroti guztiri pasatzen zaie orrazie garai hontan. Goiko kaxko hoitatik puntutxo beltz ikusten deen hoik, nerea bezalako lau besok bultzata re muitzen ez deen belar bola dee ondoa etorrira. Puntutxoz puntutxo, bolaz bola negue pasatzeko añeko pillek in arte.

Bola, pardo o meta hoitako bakoitze izen bihurtukot testu hontan, eta jolas baten modun orraztukottot gure herritako baztarrak. Matte omen dattezke norbean baztarrak lañoak izkutatzen dittonean; matte dattezke gure barroti, soro ta txokoak nola izena duen e ez dakiunean... Baño, ai..., ze politte ikustean dena gainargi daunean. Izen hotako bakoitze izan daillela kaxko batean esei eta inguruei eskeñitako beitture goxoat! Lurketa, Aldaon, Etxazpi, Andubi, Lizardi, Minetas, Olanotas, Aiztitxo, Ilorra, Sakolaiz, Ittete, Arruñe, Musaiio, Ulangarate, Errekaundi, Errekatai, Muzkur, Izain, Akolomaketa, Gahate, Erronditte, Usategi, Akiolatz, Marralleta, Ukunu, Etzillarte, Olabe, Saltaleku, Oldiola, Aldabe, Epela, Dolbo, Sapparra, Tellegi, Aizkorri, Barriti, Herrizarra, Zeleta, Iututa, Osinenea, Oeta, Artabu, Eirohaundi, Zizurrima, Erasota, Zabale, Kastabal, Aiztan, Ernape, Arbizaldei, Itxitu, Musan, Akamur, Sasain, Perraia, Urdanin, Ube, Antzubiaga, Otsomalkor, Aiztondo, Hirimuga, Harritxuri, Artsaits, Gesala, Artza, Mokoloka, Koio, Elorriaga, Usartza, Mekola, Itturrita, Aldats, Soraberri, Itturraun, Amixisti, Intxaurreta, Bideburu, Urdin, Elorria, Kostiel, Elezkiel, Tufarreta, Galzilabe, Aldosta, Atagain, Zezalain, Muño-haundi, Urdandeine, Abi, Urtei, Azkunar, Tokita, lizin, Aldabe, Txantxixa, Anbeloa, Uban, Arzaal, Aizuñe, Aztio, Beoate, Gañota, Epurdi, Osotiz, Manda Osina, Arapilzur, Txurrituru, Deorro, Tulle, Beikorreka, Autxe, Ubate...

Ardure latza dauku izen eta izan hok denak laño artean gal ez daittezen. Uda on!

Printza: Larraungo gune autogestionatua

Ekainaren 23an, San Joan bezpera egunean, deituta zegoen triki-poteoaren ondotik, hainbat gaztek Larraungo udaletxe zaharraren eraikinaren okupazioa publiko egin zuten gainerakoengan poza, harridura edota beste batzuen haserrea piztuz.

Geroztik, bederatzi lagun inguruk bertan jarraitzen dute bizitza egiten, egoera normalizatu arte bertan jarraituko baitute lotan. Printza jarri diote izena bertan jorratu nahi duten proiektuari: *“Itxaropen printza, zapalduon printza, gazteon printza, Lekunberriko printza, Larraungo Printza, tunel ilunean nora jo erakutsiko digun printza, eta gu, desjabetuok, indartuko gaituen printza”*.

Udako solstizioaren iluntze magikoa egun aproposa iruditu zitzaien printza hori pizteko, herritar batzuentzako orde, ez da momenturik aproposena izan. Hala ere, Larraungo gazteek bizi duten egoeraren inguruko kexak ez dira atzo sortuak. Azken urte hauetan areagotu egin da etxebizitzaren arazoarekiko kezka eta baita gazte eta oro har herritarrentzako elkargune baten falta. Larraundarrek ez baitute bermaturik ibarrean bertan etxebizitza eta emantzipaziorako eskubi-dea eta elkargune fisiko baten faltak zaildu egiten du hamazazpi herrien arteko kohesioa.

Bestalde, okupazioaren mugimendua ere ez da jaioberria Euskal Herrian. Gaur egungo sistema politiko honen zutabe nagusia plusbalioaren eraketan oinarritzen den esplotazio harremana dela kontuan hartuz, jabetza pribatuaren kontraktasunean jabetza kolektiboa eraikitzeko bitartekoa da. Sistema juridikoaren mugak gaingitzen dituen eta maiz, errepresioa ekartzen duena.

Errakik, Gune Autogestionatuen Babes Sareak, hala kaleratu zuen






Printzaren atea ireki ziren egun berean: *“Langileok gestionatutako gune berri bat Larraunen. Etsaiaren espazioak birjabetu eta iraultzaren norabidean pausuak ematen jarraitzen dugu. Meta dezagun potentzia”*. Printza proiektuaren atzean dabilzanek argi utzi nahi izan dute etsaiari direnean sistema kapitalistaz ari direla eta inondik inora ez diotela Larraungo EH Bilduko kideei erreferentzia egiten. *“Estatua ez da neutroa eta administrazio gune edo instituzio bakoitzak egungo sistema mantentzeko papera betetzen du, nahiz eta modu hobekoan edo okerragoan egin daitekeen. Etsai kontzeptuak beraz, sistema kapitalistaren tresnei erreferentzia egiten diela ulertzen dugu eta ez alderdi politiko edo are gutxiago pertsona konkretuei. Instituzioen kudeaketa modu batean edo bestean egin daiteke. Liberalismo bortitza sustatuz edo herri mugimendua lagunduz, gizarte hobe bat eraikitzeko indarrak metatuz”*.

Eraikina Printzaren proiektua aurrera eraman ahal izateko tresna edo espazio gisa okupatu dutela azaldu zuten kideek herritarrekin egindako lehen batzarrean. Gazteengan izaera kritikoa bultzatuz lan egiteko beharra zegoela ikusi zuten eta interesaturik egon zitezkeen gazte batzueganajo eta eskualde mailako hausnarketa egin zuten. Era berean, iragan hurbileko bi aurrekari aztertu zituzten. Honakoa izan zen egin zuten irakurketa:

1- Gabari Gaztetxea: *“Gazte Asanblada batek hartu zuen eraikina proiektu hori martxan jartzeko, baina*



EKainaren 23an ireki zituzten Printzako atea. Arg: Labrit.

denborarekin Gazte Asanbladan parte hartzen ez zuen jendea eraikina jabe egiten joan zen poliki-poliki, azkenean, Gazte Asanbladak eraikina uzteraino. Gainerako askorentzat drogatzeo lekua bihurtu zen eta eraikina txikituta utzi zuten”.

2- Mailope Gazte Asanblada: *“Bolutarismo batean erori ginela iruditzen zaigu. Lan asko egin genuelako, baina helburua zein zen argi eduki gabe”*.

Hausnarketa horretatik ondorio argia atera zuten, proiektu bat aurrera ateratzeko lehendabizi oinarri sendoak ezarri behar direla. Bestalde, gazteen egungo errealitatea ere aztertu zuten, adibidez urteetan ikasten ibili eta gero lan duinak eta egonkorak lortzeko zailtasuna dutela edota langileek antolatzeo eta elkartasun sareak osatzeko beharra dutela. Horretarako, okupazioa, espazio horiek sistemaren logikatik askatu eta langileen mesedetara jartzeko tresna gisa ulertzen dute.

Dagoeneko burutu ditzaketen zenbait egitasmo aipatu dituzte, euskara klaseak ematea, bertso eskola sortzea, generoaren arazoaren gaineko formakuntza, elikagai biltegia, baratza, desjabetze kasuetarako babesa, drogaren auzia lantzeko dinamikak... Baina horiez gain, herritar guztiek ateari irekita dituztela nabarmendu dute eta ideia berriak jasotzeko gogotsu daudela.

Hona hemen Printzako kideek proiektuaren nondik norakoak ulertzeko San Joan egunaren ondoren kaleratutako idatzia:

KOKAPENA

Larraun eta inguruko gazte batzuk elkartu eta ikusi genuen, orokorrean Euskal Herrian eta konkretuki Larraunen, gazteak -gazte sentitzen den eta proiektua bere egiten duen oro gazte bezala ulertuz- aktibatze beharra dagoela. Pentsamendu kritikoa garatzeko, elkarrekin modu sano batean harremantzeko, ondoren, aipatuko ditugun gisako proiektuak garatzeko norbera zein kolektiboa garatzeko... espazio baten beharra segituan ondorioztatzen genuen.

Derrigortuta gaude ikastera, ahal bezala diru apurren bat eskuratzea eta lan batetik bestera ibiltzea. Horrela, agerikoa den bezala, inguruko gazteak kuadrilletan banatu eta lokaletan sartzen gara, alkoholetan eta ez alkoholetan bakarrik itotzen gara, denbora librean tabernan pasatzen dugu... Horren aurrean, alternatiba integral gisa planteatzen dugu espazio berri honen irekiera, aisirako, formakuntzarako, harreman berriak garatzeko, proiektu ezberdinak garatzeko... aukera irekitzen baitu.

Bestalde, jakina da aipatutako errealitatea sistema kapitalistaren baitan egikaritzen dela, hainbat zapalkuntza forma ageri zaizkigularik. Esan beharrik ez dago gune honetan ez dugula inolako zapalkuntzarik onartuko, eta are gehiago, zapalkuntza horien desagertzearen alde jardungo duen gunea izango dela.

PROIEKTUAK

Nahiz eta denboraren poderioz jendearen parte hartzearekin orain aipatuko ditugun proiektuak baino gehiago izango ditugun jo puntuan, batzuk aipatuko ditugu ideia bat egiteko.

- Euskara.

Nabarmena da adin guztietako jendearen artean Larraunen gaztelan hitz egiteko dagoen ohitura. Izan euskara klaseen bidez, eskaintza kulturalaren bidez, kanpora zein barnera

begirako jardunaldien bidez... euskara bultzatu, ikasi, landu eta erabiliko dugu.

- Genero auzia.

Formakuntzaren bidez, eskaintzan emakumeen presentzia egotea kontuan hartuz, harreman parekideak ditugula landuz, eraso sexistak salatuz... mila modutara helduko diogu gai honi.

- Jai eredu eta droga.

Bereziki gazteok, gaur egun parranda eredu bortitza bizi dugu, azken urteetan bezala. Horren inguruan hausnartu eta ekitea oinarrizkoa izango da.

- Aisia.

Umeentzako ikuskizunak, mota askotako tailerrak, kontzertuak (betiere auzokideak errespetatuz), jokoak... bururatu daitezkeen edozer egingo dugu.

- Baratza.

Zergatik ez? Aukera bat izan daiteke belardiaren zati bat aprobetxatzea baratza eder bat egin eta elikadura autogestionatzeko.

HAUSNARKETA

Badakigu ez dela erraza izan jendearen inplikazioa lortzea, gure inguruan mamu asko sortuko direla... Denbora beharko da proiektua sendotu eta Larraunentzat onuragarria dela ziurtatuta garatzeko; hala, denbora izango da testigu. Proiektu sendo eta oso interesgarri batekin gatoz, gogoz beterik eta ilusioz, eta hori transmititu nahi dugu.

Aurretik esan dugun bezala, auzokideak eta ingurua errespetatzea proiektuaren oinarri izango da, denona, eta denontzat baita proiektua langileok langiontzat egiten baitugu proiektua. Kontu handia izango dugu horretan, hasieratik auzokideekin kontaktua bereziki zainduz eta elkar ulertzea bermatuz.

Zure PRINTZA ongi etorria izango da! Animatu!

“Jendeak proiektu hau bere sentitzea nahi dugu”

Ekaineko azken astean egindako lehen batzarrean ordea, galdera ugari ere sortu ziren eta bertan Printzako kideen ahotik jasotako erantzunak bildu nahi izan ditugu.

Zein izan da Larraungo Udalaren erantzuna?

Udalarekin elkarrizketa batzuk ireki ditugu eta egia esan presio dezente egiten ari dira. Sozialki ere iruditzen zaigu momentu honetan guk baino indar gehiago dutela jendearengana iristeko. Orain zaparrada horri nola edo hala eusten ari gara, jasotzen ari garen animoek asko lagunduta. Denborarekin erakutsi beharko dugu zertara gatozen. Eta serio gatoz! Oraingoz elkarrizketa irekita dago. Gure helburua ez da inondik inora alderdi politiko bat edo bestea ahultzea, baizik eta Lekunberri, Larraun eta mundu hobe baten eraikuntzan aritzea. Horrenbestez, zailtasunak zailtasun, bi aldeentzako onuragarria den akordio batera iritsi nahi dugu. Printzak beste modu batera parte hartu eta harremantzeko aukera emango digu: elkartasunez eta maitasunez.

Okupatzearen erabakia hartua zegoen hauteskundearen aurretik?

Guk hasiera batean mintegi batzuk egin nahi genituen eta argi genuen ez zela teoria hutsean geldituko, hau da, hortik ateratzen genuena praktikara eramanez nahi genuela.

Herritarren artean badira udal aldaketaekin elkarlanerako aukera gehiago izan zitekeela pentsatzen dutenak eta momentu egokiena ez dela pentsatzen dutenak...

Batzuk EH Bilduren kontrako erasotzat hartu dute eta gu ez gatoz horretara. Gu Larraunen alde lan egitera gatoz, eskualdearen alde. Eta Bildu egon edo ez, gure asmoa plan honekin aurrera egitea zen. Instituzioak sistemak erabiltzen dituen tresnak direla ulertzen



Printzako kideek espero baino jende gehiago bildu zen lehen batzarrean. Arg: Labrit.

dugu eta gure helburua hortik kanpo dagoen proiektu bat sortzea da, sistema horri aurre egin nahi diogulako. Hasieran gazte gutxi batzuen artean egindako lanketa izan zen eta orain proiektua gainerakoekin konpartitu eta zabaltzeko momentua da. Denon artean joanen gara hemendik aurrerakoa garatzen.

Eta zergatik etxe hau?

Etxe honek izugarriko potentziala daukala ikusten dugu eta gure proiektua ez dugu epe motzean ulertzen. Momentu honetan, berehalako beharrei erantzuteko agian ez diogu etekin aterako espazio guztiari, baina aurrera begira, ziur gaude beharrezkoa gertatzea langileen arteko elkartasun sareak osatzeko.

“Gaztedia potentzial bezala ikusten dugu, baina langile guztion proiektu bezala ulertzen dugu”

Eraikinaren egoera eta segurtasun baldintzak baloratu dituzue?

Bai, hona sartu aurretik, pixka bat ezagutzen genuen eraikina eta publiko egin genuen momentuan bertan, arkitekto bat ekarri genuen. Goitik behera begiratu zuen eta ez dago arazorik. Eraikina ongi dago. Dena den konpondu beharreko hainbat zehaztapen eman zizkigun, baina egitura ongi dago.

Izaera irekia izanen du proiektuak?

Guk leku hau ez dugu hartu gure interes pertsonaletarako, espazio hau helburu komun batzuei erantzuteko okupatu da. Izaera guztiz irekia izanen du. Agerikoa da Larraunen badela hutsune handi bat bai gazteria aktibatzeke eta baita egitasmoak aurrera eramateko ere. Behar horri erantzuteko erabiliko dugu eraikina, eta edozein proiektu edo behar asetzeko. Hala ere, ez dugu aurreko akatsetan erori nahi, horregatik jarri ditugu errespetatu beharreko oinarri horiek. Eta oso oinarri irekiak direla iruditzen zaigu. Argi daukagu hau ez dela parrandarako leku bat izanen, beste lan bat egitera gatoz. Jendea animatzen dugu proposamenak baditu egin eta espazioa behar badu antolatzen, hemen babesia izanen duelako. Gainera, proiektuarekin interesatu den jendea badago jada, parte hartuko duela adierazi diguna. Hori izaera irekia denaren adibide bat izan daiteke.

Oraingo bertan ari zarete bizitzen...

Bai, egoera egonkortu arte hemen egotea aurreikusten dugu. Egia esan nekagarria izaten ari da. Lo gutxi egingen ari gara, tentsio handiarekin, eta gelditu gabe lanean, baina talde sendo bat osatu dugu eta horrek asko balio du. Herritar batzuek euren babesia adierazi digute, janaria ekarri etab. Askok eskertzen dugu. Hau ez da gazteentzako gune bat bakarrik, gaztedia potentzial bezala ikusten dugu, baina langile guztion proiektu bezala ulertzen dugu. Beraz, edonork baliagarria izan daitekeen zerbait egin dezakeela uste badu oso eskerturik egonen gara.

Zergatik ez zenuten aurrez zuen asmoen berri eman?

Okupatzera gindoazela publiko eginenez gero, agerikoak diren trabak izango genituen. Segurtasun arrazoiak tarteko, gure kabuz bidea egin eta irekieran ahalik eta jende gehien elkartu nahi izan genuen, guzti haiek Printza bere sentitu zezaten.



ZUREZKO TAILLAK
ESKUZ EGINDAKOAK

- ✿ ETXEEN IZENAK
- ✿ EGUZKILOREAK
- ✿ ONGI ETORRIAK
- ✿ ESEKILEKUAK
- ✿ ARMARRIAK

Mota guztietako egur taillaketa
618 352 014 whatsapp
geroarte@ymail.com

LEKUNBERRI



Eman izena egur tailla ikastaroan!

Mikel Okiñenak hamar urte inguru daramatza Lekunberrin egurra lantzen ikasteko tailerrak eskaintzen. Ikasturte honetan eskualdeko hamar ikasle izan ditu eta larunbatero elkartzen dira Lekunberriko udaletxe azpiko aretoan. Jende askok ordea oraindik ez dakiela dio Okiñenak, Amaia Saralegik berak Iruñean ezagutu zuen eta ondoren jakin zuen Lekunberrin ere tailerrak eskaintzen zituela. Geroztik ikasle finen artean dago, erlaxatu eta zentratu egiten omen du.

Mikel: *“Norberak bere erritmoa darama. Ikasle berriei teoria azaldu eta zenbait ariketa jartzen dizkiet teknika ikasteko. Oinarrizkoa hilabete eta erdian ikasten dute eta hortik aurrera norberak bere ideia lantzen du”.* Eskultura, eskitokiak, ezkutuak, kartelak... Denetik egiten dute, Juan Martin Martinikoren esaterako, lan handia daraman ontza bat egiten dabil. Mikel: *“Batzuek hemen baino ez dute egiten eta beste batzuk aldiz astez ere denbora libre dutez etxean ere aritzen dira eta asko aurreratzen dute. Engantxatu egiten die, batzuei bazkaltzea ere ahazten zaie!”.*

Joxe Mari Buldain ere jubilatu zenean hasi zen, egurra lantzen behin ere ibili gabea zen baina bizitza osoa igeltsero eta iturgin lanetan ibilitakoa izanik eskulanera inor baino ohituagoa dago. Iaz Gernika lanaren egurrezko erreplika egitea lortu zuen. Joxe Mari: *“Alabak animatu ninduen. Niretzat bizitza da. Baina pazientzia behar da, pazientziarik ez bada ez da deus egiten, beste gauza askotarako bezala”.*

Mikelek eskerrak eman nahi dizkio Lekunberriko Udalari eta bereziki, Inma Etxarriri urte guzti hauetan tailerra antolatzen laguntzeagatik. Irailetik aurrera, berriro ere elkartzen hasiko dira, beraz ez galdu aukera eta eman izena Mitxasenea Kultur Etxean (948 604 582).

EUSKAL HERRIA

“Etxe honetan” bilduma izan da Etxepare Sarietako aurtengo lan onena

Antolatzaileen arabera, aurtengo inoizko ediziorik emankorra izan omen da, Etxepare Sarietara 23 lan aurkeztu baitira. Asier Iturralde Glez de Alaiza eta Aintzane Usandizaga Lopez egileen “Etxe honetan” albuma izan da 2019ko sariduna. Etxean arauak jartzera ohituta dagoen aita-txi baten eta honen egunerokotasuna eta errutina hankaz gora jartzen duen ilobaren arteko harremana kontatzen dute bertan. Joan den hilean jaso zuten saria, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan. Izan ere, udazkenean argitaratuko du Pamiela argitaletxeak saritutako lana.



Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK.
KOPA. BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

LARRAUN



Larraungo Egun arrakastatsua Arruitzen

Joan den ekainaren 15ean ospatu zuten larraundarrek ibarreko eguna. Larraungo pilota elkarteko ikasleek hainbat partida jokatu ondoren, Tirikitrauki dantza taldeak emanaldi bikaina eskaini zuen. Antolatzaileek aurreikusia zuten argazki erraldoia ere ateratzeko aukera izan genuen, photocall saioez inor gogoratu ez bazen ere. Julio Soto eta Aitor Mendiluzerekin izan zen bertso-bazkarian, 210 lagun inguru elkartu ziren aurten eta arratsaldean, gaztetoentzako puzgarriak eta gazte-olinpiadak jokatu eta gero, iluntzera arte luzatu zen Larraungo Egunaren jaia Trikidantz taldearekin.



MENDIALDEA

Mendialdea sustatzeko argazki lehiaketa

Aralar-Urba Landetxeen Elkarteak argazki lehiaketa bat antolatu du Mendialdea eskualdea sustatzeko. Bertako ohiturak, jendea, ingurune naturala, paisaiak, herriak edo ondarea islatzen duten argazkiak behar dute izan. Lehenengo saridunari bi lagunentzako asteburuko egonaldia oparituiko zaio, bigarren saridunarentzako bi lagunentzako bazkaria eta hirugarrenarentzako berriz, bertako produktuekin osatutako otarra. Urriaren 31 arte izanen da argazkiak aurkezteko epea. Informazio gehiago www.aralarurbasa.com atarian.

ARAITZ

Araizko Kablearen Eguna ospatuko dute uztailaren 28an

Uztailaren 28an, Araizko Kablearen Eguna ospatuko dute Gaintzan. Araizko Zaporeakek antolatu du eta goizeko 11:00etan Gaintzako plazan elkartuko dira, oinez kablea dagoen zelaira joateko.

Belarra egin, buxiak bete eta kablea martxan jarriko dute, arbasoek nola egiten zuten azalduz.

Ondoren, eguerdiko 14:00etan bazkari autogestionatua egingo dute, baina edaria Araizko Zaporeen kontura izango da.

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatara
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

SANJOANAK

San Joan suen bueltan

Ohitura den moduan, ekainaren 23an, udako solstizioa suaren inguruan ospatu zuten eskualdeko herri askotan. Esaterako Betelun presan elkartu ziren eta Iribasen ere su gaintetik saltoka ibili ziren haur eta heldu. Lekunberrin ere akelarre moduko bat irudikatu zuten txalaparta eta herriko helduen batukada eta guzti. Baina bertan, ospakizun handixeagoa izan zuten aurtengoan ere, herriko jai txikiak baitira, Sanjoanak. Larunbatean, Nafarroako garagardo ekoizle ezberdinak dastatzeko aukera izan zen herriko plazan. Eta igandean berriz, iluntzeko suen aurretik, bertan bizi diren atzerritarrei euren herrialdeko sukaldaritza plater gustukoena ezagutarazteko aukera eman zitzaion. Jatorri ezberdinetako platerak eskaini ziren, argentinarra, bulgariarra, kolonbiarra, nikaraguarra... San Joan eguneko herri bazkariarekin borobildu zituzten jaiak. 130 lagun inguru bildu ziren bazkaltzera eta bien bitartean Ayestaran Hotelean jubilatuek euren bazkaria izan zuten. Aurtengo omendua Inmaculada Lanz izan zen. Zorionak!



LEKUNBERRI

Zinea, antzerkia, musika eta jolasak uda honetan, Lekunberrin

Uda honetarako kultur egitarau zabalak antolatu du Lekunberriko Mitxau-senea Kultur Etxeak. Uztaileko azken bi asteartean eta abuztuko lehen bietan zine emanaldia eskainiko da frontoiko plazan, gaueko 22:00etan. Bestalde, abuztuaren 17, larunbata, Nafarroako Gobernuaren Kultur Programaren baitan, Sonakay taldearen kontzertua izanen da, iluntzeko 20:00etan herriko plazan. Eta ez dira faltako ere urteroko azokak. Abuztuaren 4an Antzinako Merkaturia izanen da Alde Zaharrean eta abuztuaren 18an berriz, Nekazal Azoka Iturritak kalean. Gainera, uztailearen 5ean (19:00-00:00), 6an (09:00-00:00) eta 7an (09:00-20:00), II. Puzzle Topaketa izanen da udal aretoan. Hamalau urtetik gorakoentzako dago antolatuta eta parte-hartzea mugatua izanen da. Beraz, eman lehenbailehen izena 619 361 707 mugikor zenbakiaren bitartez.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Inigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA EL INCA ESTETIKO HORTZ ELIKATZA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zokia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkoa. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

SANPEDROAK

San Pedro festak ospatu dituzte Mugiron eta Betelun

San Joan bezperaren ondorengo asteburuan Sanpedroak ospatu zituzten Mugiron eta Betelun. Mugiron festei hasiera emateko herri afaria egin zuten ostiralean, herriko ostatuan eta patroiarene egunean, aizkora, mus txapelketa, puzgarriak eta barrikotea izan ziren besteak beste. Igandean pilota partida eta txokolatearekin agurtu zituzten festak. Betelun berriz, lau eguneko ospakizunak izan zituzten. Aurten gainera hasiera berezia izan zuten jaiek, Osasunako jokalaria den Oier Sanjurjok bota baitzuen suzuria. Aurten berritasun gisa, ardo txuri dastaketa izan zen. Baina ez ziren falta izan urteroko jarduerak ere, paella edo patata tortilla lehiaketa esaterako. Ainara eta Aitor Goikoetxeak prestatu zuten paella izan zen goxoen epaimahaiaren arabera, eta patata tortilla onena berriz, Pili Aparicioarena izan zen. Atxur tiraketan Mikel Otamendi aritu zen trebeen 25,60 metrorekin eta emakumezkoen zartari tiraketan Estefania Olaetxea 23 metrorekin. Horra hor aurtengo Sanpedroetan jasotako zenbait irudi!



MUGIRO



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO
ELKANO
S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

BETELU



M. Angeles Urrizalki
iragarkiak, berriak, eskelak...
Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala
948513056
699179437

Atabal
 okindegia
 Era askotako ogiak eta gozoak
 Etxez etxe banatuko dugu
 Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
 harategia


BERTAKO HARAGIA
 Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
 Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.
 Antigua Kalea Nº7
 31890 BETELU
 Telf: 948 51 30 88
 maiteharategia@hotmail.com

Igeriketa sinkronizatuan Nafarroako txapeldun

Nafarroako Kirol Jokoen Txapelketan emaitza ezin-hobeak lortu dituzte aurtien Plazaola Taldeko neskek taldekako igeriketa sinkronizatuaren proban. Hamabi urtetik gorako taldeak bost urte daramatza entrenatzen eta aurtien lehen postua eskuratu du Anaitasuna, Berriozar, Amaia eta beste hainbat klubekin batera lehiatu eta gero. Horrez gain, hamabi urtetik beherako taldea ere ongi aritu zen eta bigarren sailkatu zen. Klub bakoitzak bere ur azpiko koreografia aurkeztu zuen eta Plazaolakoena egon zen baloratuen artean. Zorionak!



Pilotan ere neskek txapeldun!

Joan den hilean Olaia Iriarte eta Irati Gartziaena larraundarrak Nafarroako Trinkete Txapelketako infantil mailako irabazle izan ziren. Baraibar eta Gorritiko bikoteak 25 eta 15 irabazi zuten Mendillorriko bikotearen aurka jokatu eta gero. Zorionak zuei ere, bikote!

**OHI DENA
EDATEA
GEHIEGI
IZAN DAITEKE**

Ezagutzen dituzu zure mugak?

 www.ohidenaedatea.nafarroa.eus

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalean izen-emateko epea zabalik



Irailaren 14an izanen da Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalaren 3. lasterketa. Aurten, Nafarroako eta Euskal Herriko kopak lehiatuko dira bertan. Goizeko 10:00etan irtengo dira korrikalariak Intzako plazatik eta Ttutturreko ton-torreraino iritsi beharko dira. Guztira 3 kilometro eta 850 metro eginen dituzte, 360 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea. 2. kilometroan ura eskainiko duten anoa gunea izanen da, Aginako Iturria dagoen lekuan. 16 urtetik gorako edonork parte har dezake lasterketan, baina adin txikikoen kasuan beharrezkoa izanen da gurasoen edo tutoreen baimena.

Dagoeneko izen emateko epea zabalik dago www.rockthesport.com atarian eta izen-emate bakoitzeko bi euro Sos Himalaya elkartearentzako izanen dira. Animatu eta eman izena! Informazio gehiago: www.intzattutturrekb.eus

Emakumezko Txirrindulari onenak Lekunberrin helmugaratuko dira

Uztailaren 30ean eta abuztuaren 1ean bi txirrindulari proba izanen dira Nafarroan, I. Emakumezkoen Lasterketa Klasikoaren baitan. 113 eta 112 kilometroko bi proba izanen dira eta nazioarteko emakumezko txirrindulari onenek parte hartuko dute. Uztailaren 30eko lasterketa Iruñetik irtengo da eta Lekunberrin izanen du helmuga, Ultzurrin, Genbe, Lezaun, Lizarraga eta San Migeleko portuak zeharkatu eta gero. Bigarren proba berriz, Iruñetik Lodosarainokoa izanen da. Emakumezkoen txirrindularitza sustatu eta ikustaraztea du helburu lasterketak.

EDARI UNITATEAK (EU)



URA / FRESKAGARRIA

0 eu



BASOKADA BAT ARDO

1 eu



KAINA BAT GARAGARDO

1 eu



GARAGARDO HERENA

1,5 eu



KREMA / LIKOREA

2 eu



RONA / VODKA GINEBRA...

2 eu

ZURE OSASUNERAKO EZ GAINDITU



4 eu

..... Egunero

2 eu

6 eu

..... Egun jaikinetan

4 eu



ALKOHOLIK GABEKO BESTA, AUKERA HOBERIK EZ DA!



www.ohidenaedatea.nafarroa.eus

Nafarroako Gobierno
Gobernua de Navarra

Egungo erronkei aurre eginez eta ametsak betez

Aritz eta Beteluko ikasleak batzen dituen Araxes Ikastxean ere amaitu dute dagoeneko ikasturtea eta inoiz baino zapore onagoarekin gainera. Arrakastatsuak izan diren hainbat proiektu jarri dituzte martxan eta euren ahotik izan dugu horien berri.



Egunerokoan, ikasleei eta gure haurrei honelako mezuak helarazten dizkiegu: egoera berrietara egokitzten jakin behar dutela, ingurunearekiko erantzukizunez eta errespetuz jokatu behar dugula, ametsak egi bihurtzen saiatzea ezinbestekoa dela, erronka berriei ilusioz aurre egitea komeni dela eta elkarlanean, elkarri lagunduz oztupoak eta zailtasunak errazago gainditzen direla. Baina mezu horiek ez dute zentzurik hitzetan bakarrik geratzen badira.

Horregatik, Araxes Ikas Komunitatean, gure ikasleei gero eta hezkuntza hobea emateko helburuz eta egungo beharretara egokitzeko asmoz, hainbat erronka eta proiektu aurrera eramaten ari gara azken urteetan. Horren adibide da Eskola jasangarriaren proiektua, liburutegia biziberritzearen ekimena edota jardunaldi jarraia eskaintzarekin batera, bazkalondorako tailer eta jarduerak antolatzearena.

Beteluko Araxes Ikas Komunitatean ikastetxea sostengarri bilakatzeko urratsak ematen ari gara. Hondakinak murriztu eta birziklatzen ditugu. Materia organiko guztia ere konpostatzen dugu, baratzean erabiltzeko.

Ikastetxearen ohiko funtzionamenduak ingurumenean duen eragina murrizteko egitasmo bat martxan jarri dugu eta aurrera eramaten ari gara. Gure ikastetxea sostengarri bilakatzeko helburuaren baitan, gure hasierako proiektu nagusia, Araxes ikastetxeko hondakinen kudeaketa hobetzea izan da.



Honela, DBH-2ko ikasleek hartu dute hondakinaren kudeaketaren urteko egitasmoa egitearen eta ikasturtean zehar aurrera eramatearen ardura. Dena den, proiektuaren garapena ikas-komunitate osoaren parte-hartzearekin egiten ari gara. Natur baliabideak eta energia aurrezteko, aldaketa klimatikoa gelditze aldera, hondakinaren murrizketa, berrerabilpena eta birziklapenaren bidea jarraitzen ari gara:

- Murrizketa: Ikastetxean hondakin gutxiago sortzeko aukerak aztertu ditugu. Hamaiketako garbia izeneko kanpaina burutu da: hamaiketakoan zilarrezko paperak eta film-plastikoak erabili ordez, bock'n'roll-ak banatu eta erabiltzen hasi gara.

- Berrerabilpena: ahal dena berriro erabiltzen dugu, orriak bi aldetatik, jangelako jogur-poteak baratzean hazientzako ontzi gisara...

- Birziklapena. Ikastetxeko hondakinaren gaikako bilketa-sistema berrantolatatu dugu. Ikastetxeko hondakinaren gaikako bilketa-sistema aztertu ondoren, geletan, zein pasabideetan birzikla-gaiak modu egokian bildu ahal izateko ontzien kokapena antolatu dugu. Ikasleok arduratzen gara birziklatzeko gaiak biltzeaz.

- Ikastetxean sortzen dugun materia organiko guztia konpostatzen dugu: Hamaiketakoan eta jangelan sortzen den materia organikoa, banaturik bildu eta baratzean ditugun konpostagailuetan konpostatzen dugu. Eskola-baratzean erabiliko dugu gero ongarri gisa.

Ekimen honekin hainbat balio eta helburu sustatzea eta barneratzea lortu dugu. Izan ere, ikastetxeko ikasle guztiek, jasotzen dituzten informazio-kanpainen bidez eta hondakinak dagokien ontzietan sailkatuz modu natural batean barneratzen dute hondakinaren kudeaketa sostengarria. Era berean, txikienek DBHko ikasle nagusienak hondakinak biltzen ikusten dituzte, eredutzat hartzen dituzte eta ilusioa dute beraiek ere ardura hori hartzeko DBH2ra iristean. Aipatzekoa da gainera, eskolan barneraturiko birziklatze-ohiturek gero isla izaten dutela etxean eta kalean.

Honela, proiektu honek duen inplikazio-maila eta eragina ikusirik, Araizko ibar osoaren hondakinaren kudeaketa sistema hobetzeko eragile indartsu bilakatu garelakoan gaude.

Ikastetxeko hondakinaren kudeaketa proiektu gisa jaiotzen bazen ere, modu natural batean eskolako beste ikasketaren prozesu batean bilakatzen ari da. Eta jardunaren bidez, ikasteaz gain, etorkizun hobeago bat lantzen ari gara denon artean.

Hurrengo proiektuari ere ilusioz ekin diogu, Eskola-Baratze Ekologikoa jarri nahi dugu martxan.

Bestalde, bazkal ondorengo tarteari beste ukitu bat eman diogu. Ikasturte honetan "Jardunaldi jarraia" izan dugu. Aldaketa hori dela eta, arratsaldeetan, astelehenean ostegunera eskolaz kanpoko ekintzak izan ditugu urritik maiatzera. Ekintza hauek irekiak eta anitzak izanik, hainbat balio lantzeko aukera eman digu-



te. Baina nagusiki, ekintza ludiko, dibertigarri eta interesgarrien bitartez adin ezberdinetako ikasleen arteko harremanak sendotzeko.

Jarduerak, bi multzotan banatu ditugu; hala, batzuk ikasturte osoan mantendu dira eta beste batzuk, aldatu eta berriak antolatatu dira. Horien artean daude: "etxerako lanak, antzerkia, dantza eta mugimendua, ingelesa, frantsesa, eskulanak, mahai jolasak eta betiko jolasak".

Aipatzekoa da, oro har, jardueren oso balorazio positiboa egiten dugula; batetik, ikasle ia denek parte hartu dutelako tailerren batean edo bes-

tean; bestetik, gurasoek erakutsitako inplikazio eta eskuzabaltasunagatik. Boluntarioki, astez aste, hemen izan ditugu. Horrelako ekintzek erakusten dute Ikas Komunitatea denok osatzen dugula eta denok dugula zerbait eskaintzeko!

Eskerrik asko, bereziki, astez aste tailerrak gidatzen eta laguntzen aritu diren gurasoei: Ana, Nerea M., Angelines, Iñaki, Maite, Amaia, M^a Jose, Nera eta Ane.

Irakurzaletasuna bultzatzen

Liburutegian pasatzen ditugu patioak batzuetan eta horietako egun batean, liburuak erabiltzen ez genituela ohartu ginenean, txukuntzea bururatu zitzaigun.

Txukuntzen ari ginela gogoratu ginen txikitako uneez, liburutegira jaisten ginela, liburuak aukeratu eta etxera eramaten genuela, orduan erabaki genuen liburutegia berpiztea.

Liburuak txukundu genitue-nean pentsatu genuen ostiralak zirela egun egokiena ikasleak jaitsi eta liburuak aukeratzeko, izan ere, bi atsedenaldirekin hobeto aprobetxatu ahalko genuke-lako. Lehenengoan, Haur Hezkuntza-tik 2. mailara arte eta ondorengo patioan 3. mailatik DBH1eraino. Atsedenaldietan ikasleak etortzen dira eta liburu bat aukeratzen dute



gure laguntzarekin. Normalean gomendioak egiten dizkiegu eta Haur Hezkuntzako umeei askotan liburuak irakurtzen dizkiegu. Liburuak aukeratu ondoren taula batzuetan apuntatzen dugu dena (ikaslearen izena, liburu...) eta hurrengo ostiralean bueltatzen dute.

Egia esan ez geunden ziur hau aurrera emateko gai izango ginen ala ez, eta poztekoa da ekimena arrakastatsua izan dela ikustea. Horrela jarraitzea espero dugu!

DBH2ko neskak.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON  Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz


urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE 
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

 panaderia okindegia
GALBURU eco
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

UZTAILA

5-7 | LEKUNBERRI:

Puzzle Topaketa udal aretoan.

23 | LEKUNBERRI:

Udako zinea 22:00etan frontoiko plazan: "Campeones".

28 | GAINZA:

Araizko Kablearen Eguna, 11:00etan.

30 | LEKUNBERRI:

Emakumezkoen Lasterketa Klasikoaren lehen lasterketaren helmugaratzea.

ABUZTUA

4 | LEKUNBERRI:

Antzinako Merkatua Alde Zaharrean.

6 | LEKUNBERRI:

Udako zinea 22:00etan frontoiko plazan: "Perezko abioiak".

13 | LEKUNBERRI:

Udako zinea 22:00etan frontoiko plazan: "Superlópez".

17 | LEKUNBERRI:

Sonakay taldearen kontzertua, 20:00etan, herriko plazan.

18 | LEKUNBERRI:

Nekazal Azoka Iturritak kalean.

ETXE BILA

Iruñeko bikote bat gara eta lur eremua duen etxe bat erosi nahi genuke, berritua edo berritu gabea. Markos: marayebus@hotmail.com.

LAN ESKAINTZA

Aralar Kanpinean lan egin nahi duzu uda honetan? Harrera lekuan lanean aritzeko pertsona baten bila gabiltza. Noski, euskara, erdara eta ingelesa, jakin beharra dira. Lan baldintza onak. Interesaturik bazaude, deitu 948 504 011 edo 667 797 904 zenbakietara.

LAN BILA

Lan bila nabil, pertsona langilea eta serioa. Pisuzko gauzak ezin hartzea litzateke eragozpen bakarra. Harremanetarako: 632 758 860 (Lekunberri).

SALGAI

Egurra txikitzeko makina, eta traktorearentzat erremolke: 2m zabalera x 3,5 luzera. 699 328 480 (Juantxo).

Baserri bat saltzen da Atallun. Egoera onean eta inguru ederrean. Harremanetarako: 646 703 705.



ekin
rotulacion
948 85 32 79



SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es



AZKARATEKO FESTAK

Uztailak 5, ostirala

21:45 Txupinazoa.
22:00 Kattalin dantza taldearen ikuski-zun berria.
Ondoren, musika.

Uztailak 6, larunbata

11:30 Ume-jolasak.
13:00 Puskabiltza trikitilariekin.
21:30 Herri afaria (Txartelak Surtidorean eta Betelun salgai).
00:30 Bide Batez taldea.

Uztailak 7, igandea

11:00 Erromeria trikitilariekin plazatik hasita San Fermin ermitaraino.
13:30 Meza ermitan.
13:00 Itze-sartze, toka eta bestelako abilezia probak, Sebastian Lizaso eta Agin Laburu bertsoariekin eta trikitilariekin.
14:30 Bertso bazkaria (Txartelak egunean bertan salduko dira).
18:30 Tortilla eta postre lehiaketa.
19:00 Sagardo dastaketa eta erromeria Laja eta Alabier trikitilariekin.

ARRIBEKO JAIK

Uztailak 19, ostirala

19:00 "Amonaren eskutik" bailarako dantzarien emanaldia.
20:13 Txupinazoa.
21:30 Herri afaria plazan.

Uztailak 20, larunbata

12:00 Puskabiltza.
18:00 Ume jolasak eta zaldi karroan paseoak. Ondoren, Gabezin.
1:00 Gabezin eta ondoren Dj Elorri.

Uztailak 21, igandea

9:00 Goiz soinua.
12:00 Meza nagusia.
12:30 Xix.Patata tortilla lehiaketa.
17:00 Gazteen pilota partidak.
19:00 Aizkolariak:
Iker Vicente - Txomin Amundarain
Ruben Saralegi - Ibai Soroa
Ondoren, pintxoak eta trikitilariak.

Uztailak 22, astelehena

11:30 Puskabiltza.
20:00 Pintxo-afari-merienda plazan, Dj Txokokin. Ondoren festei amaiera emateko ingurutxoak eta Dj Elorri.

LEZAETAKO JAIK

Abuztuak 15, osteguna - Herriko Zaindariaren Eguna

Goizean Meza eta ondoren luncha.

Abuztuak 17, larunbata

11:30 Jai Egunaren hasiera ezkil jotzea-rekin.
12:00 Haur eta gaztetxoentzako jolasak.
14:30 Herri bazkaria.
17:00 Musika, dantza eta karaokea.

AZPIROZKO FESTAK

Abuztuak 1, osteguna

21:00 Pelikula plazan.

Abuztuak 2, ostirala

17:00 Ezkil-jotzea.
17:00 Umeen krosa.
18:00 Umeen jolasak.
21:00 Patata tortilla lehiaketa eta afaria.
22:00 Flamenkoa eta musika.

Abuztuak 3, larunbata

10:00 Erronda.
17:00 Mus txapelketa.
17:00 Frontenis txapelketa.
21:00 Herri afaria.
00:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.

Abuztuak 4, igandea

12:00 Meza. Ondoren, salda.
17:00 Herri kirolak.
Ondoren, Mikel Lasarteren erakustaldia.
19:00 Txokolatada eta festen bukaera.

ERRAZKINGO FESTAK

Abuztuak 2, ostirala

-Jaien hasiera eta Puskabiltza.
Gauean dantzaldia eta parranda. Fan & Gorekin.

Abuztuak 3, larunbata

Puskabiltza.
Umeentzako jolasak.
Kuadrilla aparia eta Zerbeza dastaketa.
Dantzaldia eta parranda

Abuztuak 4, igandea

Dianak.
Umeen arteko pilota partidak eta ondoren partida bat txokota.
Herri-kirolak.
Umeen arteko herri kirolak eta ondoren erakustaldia.
Barrikotea.

Abuztuak 5, astelehena

Meza Nagusia.
Zikiro-jatea.

IRIBASKO FESTAK

Abuztuaren 24tik 25era.

ASTIZKO PESTAK

Uztailak 27, larunbata

12:00 Suziria.
12:00 Erronda etxez-etxe.
17:30 Puzgarriak eta umeentzako txokolatea.
18:00 Mus txapelketa.
20:00 Dantzaldia "Agerralde" rekin.
22:30 Herriko afaria.
00:30 Rock kontzertua: Donostiako "Kando" taldea.
01:30 Dantzaldia "Dj Oixani" rekin.

UZTEGIKO JAIK

Abuztuak 14, asteazkena

11:30 Txupinazoa.
Jarraian puskabiltza herrikoia trikitilariak lagunduta.
21:00 Herri afari musikatua Anexo Badiola, Irati Odriozola eta Joxe Leónek (txartelak Arribeko Surtidorean salgai).
Ondoren, dantzaldi aparta!

Abuztuak 15, osteguna

10:00 Meza Nagusia.
11:00 Gaztetxoaren arteko Pilota Partidak.
17:00 Mus Txapelketa (Herriko etxean)
18:00 Tramankulo Ginkana paregabea haur eta gaztetxoentzat.
19:30 Pintxo eta sagardo dastaketa trikitilariak lagunduta.

GORRITIKO PESTAK 2019

Abuztuak 22, osteguna

10:00 Pestei hasera.
10:30 Puxke biltze trikitilariak.

Abuztuak 23, ostirala

11:30 Ginkana.
17:00 Ume jokuk.
21:00 Herri aparie.
00:00 TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldie.

Abuztuak 24, larunbata

11:30 Meza.
12:00 Neska-mutil gaztetxoaren partiduk.
14:00 Herri bazkaria, eta ondoren soinu-jolearekin dantzaldie. Bingo.
21:00 Herri aparie autogestionatue nahi duenarentzat, irekie.
23:30 Dantzaldie.

Abuztuak 25, igandea

12:00 Herri kirol txapelketa.
18:00 Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia...
19:30 Pintxoak, sagardo eta ardoarekin, trikitilariak alaitue!

Uztailak 28, igandea

12:00 Pilota partiduk.
16:30 Puzgarriak eta umeentzako txokolatea.
18:30 Dantzariak: Iruñeko "Ortzadar" taldea.
19:30 Sagardo festa: txistorra, urdaia, sardinak, sagardoa...
20:00 Dantzaldia "Agerralde" rekin.
20:00 Mus txapelketaren finala.